

Labur. Jazteko gauzetan, beste errien bearra degu Euskal-errian; jateko, ez; eta edateko ur ugari ta naiko sagardo ba-degu. Ta au ala dalarik, zergatik eta obe bearrez, beste edariak ez dira gure errian eragozten, Ameriketa'n bezela?

LERTXUNDI

Txirrikiz'en Txilibitua

Peli ta Mikel ikastola-mutikuak, egun baten erriko enparantzan, in-txaurrakaz «bibika» jolastuten inardubela, «Txirrikiz» gaitz-ixenaz ezagutzen zan eskeko-aguretxuba, enparantzearen erditik elexarantza igaro zan.

Mutiko bijak, Txirrikiz ikustian, euren jolas polita bertan-bera alde-batera itxita, arlos baten ganian jarri ziran, aguriari arretaz begiratuteko ustez.

—Ene, aor nun doyan Txirrikiz agura zarra! —esan eban Mikel'ek barre-destañez—. Gure kortako astozarra baño be narrazago jakik agure ori ba-ta... Orrek jakak itxuria ostera... Olako agure zarrari, irri ta barre egin biar yautsaguk, Peli... Gaur arratsaldian, «bibika» jolastuten aspertu garian ezkeru, zetan edo atan astija emon biar yaugu ta...

—Ni enayyak zarrari eta ara be eskekuari irrik egiten —erantzun eban Peli'k, eskekuari itzalez begiratuta— Eskekua ta aguria iraindutia oben andi-andija dala, esaten daragoyok beti gure amamak-eta... Ija, ija, Jaungoikuari berari irri-egitia lakoxe obena dala esaten yok ak... Beraz, ni enayuek orretan...

—A lelu... Amamaren esanak buruban-da abil ondiko be... Nik, olako atsoen esanari, katuak sagarrari aña jaramon egiten yautsadat... Atsuen esanak zietz egiten ba-abil orratik ...ollo ta erdi ixango az beti...

—Atsuen esana dala, nai eztala, ire esanak dirala nai eztirala:... ni enayyak eskekuari irrik egiten eta kitu... Nai arek esan, nai orrek esan, txarra dana, txarra, eta ona dana, ona ixango dok beti-ta... Ik be barriz, Mikel, Txirrikiz'eri irrik eta barrerik egongo ezaezkijok oba...

Mikel mutikuak baña, bere lagunaren esanari jaramon barik, atzetik arinka juanda, eskeko aguriari irri ta barre egin eutson, onela esaten eutsola:

—Txirrikiz mirrikiz, sabela bete txarrikiz...

Txirrikiz'ek baña, destain-berba irrigarriak entzun arren, mutikuari bape ez eutsan asarrerik egin; bestera, arpegi otzan-otzapaz begirakune gozua egiñaz esan eutson:

—Mutiko polit ori, ez adi orren okerra ixan... Agure zarrari, ta batez-be eskekuari irri ta barre egitia, oben itxusija dala, ez ete dakik euk?... —eta sakeletik txilibitu polit bat atarata, jarrai eban esaten—: Geyago olako destañarik ez-egijok iñori egin; Jaungoikuak ba olako destañarik egitia, arian be gura eztaulako... Ikusi egik barriz, zelako gauza polita yuadan eskuetan. Txilibitu miragarrija dok. Tramankulutxu oneri, mutiko zintzo ta onaen abuetako putzak ots-miragarriak eragiten dautsiezak; orretarako batek ona ixan biar baña... Eta zarata miragarrijaren ots-gozoan, notin eta abere, audi ta txiki, agiri diran gustijak, soñuaren gozotasuna geldirik jasan ezinda, pozaren-pozez dantzan egin biar ixaten yuek. Olakoxe soñu atsegingarrija dok ixan be. Bera entzun ezkeruan, gura ta be iñor geldirik ezin egon; iru mille txilibitu joten dagozala begitanduten jakiek-eta... Begira ba, mutiko, ta entzun arretaz ta ulertu ondo... on-ona ixaten ba-az eu, gauza miragarrijau euretzako ontxe bertantxe ixango daia, benez esaten duat... Beraz, mutiko, zintzua ixango az, eztok?... Ona ixango az?...

Mutikua, alako txilibitu polita ikusi, ta aguriaren esanak entzun euzanian pozez ezitan jarri zan; eta txilibituagaz jabetutuarren, une baten bere barruan ona ixateko asmua artuta, aguriari, barretxu apala egiñaz, ona ixango zala esan eutson. Eta orduban, aguriak, txilibitu miragarrija, eskubetan imiñi eutson.

Andik iru-lau miñitu igaro orduko baña, Mikel'eri barriro be eskekuari irri ta barre egiteko gogua sartu yakon. Txikitatik asita eban ekandu txarrak, bere asmo onari geyago egin eutson; olakoxe okerkerijak egiten txiki-txikitatik otuba zan.

Eta mutiko okerrak, arri koskor bat edo beste lenengo jaurtita gero, aguriari erdi kantetan barre-santzoka esan eutson:

Zarra da, ta il bedi
eztau balijo lauziri...

Olako okerkerija ikusita, Txirrikiz'en eruapenak eten egin eban; agurtxu artetsua osuan asarratu zan. Ain bigun eta maitetsu mutikuari itz egin berak, eta ganera bezua be bere onerako gogo onez egin, eta olan eta gusti be mutikuaren gogua ezin ezetara be irabazi, iñuan aguriak bere kolkorako. «Orrentzat, esan-onak eta bezuzak eta abar, alper-alperrik dira gustijak» jarrai eban esaten.

Eta agure asarratuak, mutikuari dei zolija eginda, begirakune zorrotzez esan eutson:

—Mikel; nik egiñiko bezuza eure zoritxarrerako ixango al dok...!

Aguria aldendu zaneke, Mikel, txilibitua joten asi zan. Bere bularreko arnasa gustijaz, putz eta putz joranez egiten eutson arren baña, tramankulutu arek, berak uste eban lako ots-politik ezaban egiten. Orretarako alegin gustijak egin euzan arren, adarzarraren zarata lakarra baño besterik ezin ixan eutson eragin.

Ori ikusita, mutikuak, agin-artian ikaraz esan eban:

—Ze arrano dok au...? Adarzar baten zarata lakarra baño besterik etxok egiten ba-ta... Belarriak minduteko alagalakua dok... Arek aguriak esan daustazak guzurtzarrak...! Orratik gauza ona ixateko asko biar yok berak...

Eta mormorka baten ibillita gero, barriro be txilibitua joten asi zan; iru mille txilibituren ots-miragarrija entzungo ebalakuan ekin eban. Baña dana alperrik. Barrirokuan be adar-zarraren zarata lakarra bakarrik egiten eban.

Alako baten, orretan gogait egin eban. Eta esku-artian erabilian tramankulotxua, ezetarko be etzala ixango-ta, erre kara jaurtiteko asmua artu eban.

Gerotxuago baña, urari emona urak daruela-ta, bere txilibitua Peli lagunari emotia erabagi eban.

—Ona emen Txirrikiz agure zarraren bezuz miragarrija... —esan eutson Peli'ri destañez—. Eutso euretzat.

—Ondo gauza polita dok ixan be —erantzun eutson Peli'k— txilibitua pozez artuaz.

—Polita edo motza... or daukok ba eskuan. Baekik zelako adartzarra dan... Putz egijok beriala eta jo egik bertan.

—Ez, oin ez; orretarako etxequat oin astirik euki be. Onezkero etxian aparitarako itxaroten egongo dozak-eta. Beraz, bijar edo ikusiko yuagu...

Eta Peli, ori esanikuan, arinka etxeko maira juan zan.

Bijaramon goxian, mutiko bijak basora alkarregaz juan ziran. Peli'k, aurrenez Mikel'ek emoniko txilibitua, basora aldian eruan eban. Eta, mendi-txuntxurrera eldu ziraneko, Peli txilibitua jo ta jo asi zan. Orduan aren soñuaren gozu! Entzun eben gustijari iru-mille txilibituren ots-gozua iruditu yakien.

Ori zala-ta, notin eta abere, soñua entzuten eben gustijak, dantza ba-

ten asi ziran. Mendijan larratuta egozan abel-gorrijak, landa-bedarretan alikatzen ziran ardi-zurijak, eta artxiliketan ikotika ebiltzazan auntz bizkorrak eta abar, dantza baten ebiltzazala ikusi ebezan. Bata mendi-egalian agiri zan basetxe-zuriko soluan egozan layarijak be, layak alde batera jaurtita, gustijak batian dantzan asi ziran. Azkenerako, Mikel mutikua be dantzan asi zan.

Ango dantziaren dantzia, ta ango zaratia! Alako erromeri bat egundo ezan iñun egin.

Alako baten, luzaruetan joten ekinda gero, Peli'k, naiko dantzarik izango zala-ta, soñua ixildu egin eban.

Eta soñua geratiaz batian, dantzan ebiltzazanak be geratu egin ziran. Eta neketuta egozalako, gustijak atsedena artzen jarri ziran. Mikel be, bere soña zelanbait atsedendu gurarik, Peli bere lagunaren ondotxuan jzarri zan.

Olan zalarik, Mikel'eri ixilka-mixilka bekaitz kaltegarrija sortu yakon: egun atan ikusi eban gauza miragarrija ikusita, bere lagunari txilibitua emona, osuan damutu yakon. Eta barruan eban bekaitzak eraginda, emoniko gauzaz bairriro jaubetuteko alegiñetan asi zan.

—I, Peli; ekak txilibitu ori neuria dok eta... —esan eutson Mikel'ek negar-muskerijoz.

—Iria...? Bai, zereko iria...! Emona, emona dala, ez al-dakik...? Len ixango zuan iria, baña orain ezetara bez...

—Len be bai, ta oin be bai... Ori beti neuria... Eta neuria dalako, gura ta ez ontxe bertan emon biar daustak. Bestela...

Eta, ori esanda beste barik, arrapañadan juanda, Peli'ri eskuetan eukon txilibitua kendu egin eutson. Peli'k orduan, zaratak asita, emona, emona zala-ta, kenduriko gauziz bairriro emon egijola arren egin eutson. Esan gustijak alperrik baña. Mikel, txilibitua besapian ebala, bere etxera «laugiñan» juan zan.

Orrenbestegaz, Peli asarratu zan; eta asarrè be asarre zala, bere lagunari «emona kentziaren zemaya jaurti eutson. *

«Arek emon, nai orrek emon
emona, emona dok...

Emon eta kendu
sapuak bietzak kendu...

Gau a'an, Mikel, txilibitu ta gusti pozarren ogeratu zan; bere lagunaren esan bildurgarrijak arian be ezaban ikaratu; txilibitu miragarrijaz bein

jaubetu zan ezkeru, txarrik ez onik ezeban oldoztuten. Txirrikiz'ek esanikuaz be bape etzan gomutetan.

Gabeko amabi-amabijetan baña, etxe aurreko arri baten azpitik urteniko sapu andi batek Mikel'eri, lotan egoala, oñetako bietz nausijak jan eutsozan. Mikel, sapuaren aginkadeak iratzartuta, negarrez asi zan. Aren negarrak eta aren uluak! Eta, anketako miñak zirala-ta, ganeko egun-gabetan be eten barik negar egiten eban. Eta, tantaka-tantaka negar malkoz upa andi bat bete arte etzan geratu be egin.

Mañariko

OARRA.—Ipuñak gora-bera ez uste izan gizonen maldeziñoakaitik zoritxarrik etorri leikegunik. Gizonen berbeak eztau orrenbeste indar. Berba txarrenak gora-bera, Jaungoikoak gura ezpadau, etxaku ezetariko txarrik etorriko, ezta uletxo bat burutik jausiko be.

LARTXO...

Gure Kleto, egia esan, etzan ardaozale ain porrokatua be, baña jai nagusictan eta domeketan lar sarritxo... oñak sortu, buru-begiak lausotu eta etxerako bidea galdu.

Oraingoan be ezeukan makala aldean. Alan be, etzan bape burubakoa ta etzan bakarrik etorri egun orretan tabernara; zer jazoko jakon aurretik ikusirik, etxeko astoa ekarri eban beragaz, gabaz etxerakoa errezago egi-tearren.

Jaungoikoak daki zein ordutan, baltzari agur egin eutsan eta etxerako sasoi zala ta asto ganera igoten asi zan. Baita zera be! Erdira orduko, plaust, be-beraño jausi zan gizajoa. Bigarrenez eta irugarrenez be ber-berori jazo jakon, ezin ezetara asto ganera igon.

Orduan, eleizkoitxoa be bazan eta, zelan edo alan belaunikaturik biotz-biotzetik asi zan: Aita gure bat San Antoniori, asto ganera igoten lagundu dagistan... Beste bat San Pedrori... Beste bat San Joseri... eta orretara dozena erdi Aita gurea inguru. Ondoren, astoa arri baten ondora eroan eta uste osoz, alegiñak alegin, igoten asi jako. Eup... eup... et!... plaust!, etxaku ba, asto ganetik zear bestekalderaño jausi? Orduan, lurrean jarrita, gora begira esan eban: Baña, santu bedeinkatuok, danok batera sakatuko zenduen ba!...